# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**2140**

64/2011 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarriei buruzko Dekretua aldatzen duena.

Unibertsitate Erreformarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, unibertsitateetako gizarte-kontseiluek, gobernu-batzordeen proposamenez, ordainsari osagarriak esleitu ahal izango dituzte unibertsitateko irakasleentzat, era indibidualean. Hori oinarri hartuta, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak, Gobernu Batzordearekin bat, unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioei gehigarrizko ordainsari osagarriak emateko sistema bat ezarri zuen 1999. urtean, eta ordainsariok esleitzeko hiru deialdi egin zituen.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 34. artikuluaren arabera, Jaurlaritzak ordainsari-osagarriak ezarri ahal izango ditu irakasle eta ikertzaileentzat, –izan funtzionario edo kontratupekoak–, betiere irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketaren esparruan egoki iritzitako irizpideak eta, horien artean, hizkuntza-merezimenduak, kontuan izanda. Artikulu horrek dioenez, gainera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, unibertsitate-alorreko eskumenak dituen sailaren proposamenez, ordainsari horien mugak ezartzea eraginkortasun eta eragimen irizpideen arabera, eta Gizarte Kontseiluari dagokio, unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren proposamenez, horien banakako esleipen indibiduala erabakitzea, Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak egindako merezimendu-balioespena kontuan hartuta.

Gai hori ardatz hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu zuten, 2004ko abenduaren 21ean, finantziazio-eredu iraunkor bat garatzeko eta gehigarrizko ordainsarien eredu berri bat ezartzeko, indarrean zegoena alde batera utzita.

Eredu hori garatze aldera, urriaren 17ko 209/2006 Dekretua onartu zen, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**2140**

DECRETO 64/2011, de 29 de marzo, por el que se modifica el Decreto sobre complementos retributivos adicionales del personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

La Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, en su artículo 46.1 establecía la posibilidad de que los Consejos Sociales de las universidades, a propuesta de sus Juntas de Gobierno, pudiesen acordar con carácter individual la asignación de complementos retributivos para el profesorado universitario. En base a ello, el Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, de acuerdo con la Junta de Gobierno, estableció un sistema de complementos retributivos adicionales para el profesorado funcionario de los cuerpos docentes universitarios en el año 1999, que tuvo tres convocatorias.

Posteriormente, el artículo 34 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, dispuso que el Gobierno podría establecer para el personal docente e investigador, funcionario y contratado, complementos retributivos, de acuerdo con los criterios que considerase oportunos en torno a la docencia, la investigación y la gestión, entre los que se incluirán los méritos lingüísticos. Asimismo, dicho artículo señala que corresponde al Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de universidades, establecer los límites de dichas retribuciones de acuerdo con los criterios de eficacia y eficiencia, y al Consejo Social, a propuesta del Consejo de Gobierno de la universidad, acordar la asignación singular e individual de los mismos previa valoración de los méritos por Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

En este marco, con fecha 21 de diciembre de 2004 se firmó un Acuerdo entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el desarrollo de un modelo estable de financiación y la implantación de un nuevo modelo de retribuciones adicionales, ignorando el existente.

Para desarrollar este modelo se aprobó el Decreto 209/2006, de 17 de octubre, sobre complementos retributivos adicionales del personal docente e in-

osagarriei buruzkoa; bertan, eredu horretarako erregelamenduzko markoa ezarri zen.

Orain arte, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleentzako lau ebaluazio-deialdi egin dira: 2007an (2007-02-19ko EHAA), 2008an (2008-12-18ko EHAA), 2009an (2009-12-16ko EHAA) eta 2010ean (2010-12-17ko EHAA).

Orain arte izandako emaitzak aztertu ondoren, 209/2006 Dekretua berrikusteko unea heldu da, dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

Horretarako, 1999tik 2007ra bitartean egindako ebaluazioen emaitzak alderatu, eta honako hauek aztertu dira: ebaluazio-prozesuetan izandako emaitzak, Unibasq Agentziaren ebaluazio-batzordeek erredaktatutako gomendioak, eskatzaileen kexak, Eusko Jaurlaritzako Auzibide Zuzendaritzak egindako iradokizunak –zuzendaritzak Ebaluazio Agentzia defendatzen du, orain arte eman diren ebazpenen aurka eskatzaileek hasitako prozedura judizialetan–, eta, azkenik, beste autonomia-erkidego batzuek antzeko prozesuetan izandako esperientzia.

Hori guztia abiapuntu hartuta, dekretua aldatzeko proposamen bat landu da, prozesu honetan etengabe sortu diren auziak saihesteko, ebaluatzeko eta onarpena emateko prozedura azkartzeko, eta gehigarrizko ordainsari osagarriak emateko sistema egonkorrago bat lortzeko, funtzio publikoan ezarritako beste sistema batzuekin parekatu daitekeena.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren proposamenez, generoaren inguruko eraginari buruzko ebaluazio-txostena emanda, eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko martxoaren 29an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-osagarriei buruzko urriaren 17koa 209/2006 Dekretua aldatzea, honako era honetan:

***Lehenengoa***.– 1. artikuluko 3. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«3.– Osagarriak esleitu baino lehen, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak kasuan kasuko merezimenduak balioetsi, eta aldeko iritzia eman behar du, betiere dekretu honen 8.1 artikuluan ezarritako protokoloaren arabera».

vestigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea que establecía el marco reglamentario del mismo.

Hasta el momento se han realizado cuatro convocatorias de evaluación para el profesorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en los años 2007 (BOPV de 19-02-2007), 2008 (BOPV de 18-12-2008), 2009 (BOPV de 16-12-2009) y 2010 (BOPV de 17-12-2010).

En este momento, y de acuerdo con lo establecido en la disposición adicional segunda del Decreto 209/2006, se inicia la revisión del mismo tras el análisis de los resultados obtenidos hasta la fecha.

Para ello se han confrontado los resultados de las evaluaciones realizadas en 1999 y 2007, se han analizado los resultados de los procesos de evaluación, las recomendaciones redactadas por los propios Comités de evaluación de la Agencia, las protestas recibidas de los solicitantes, las sugerencias de la Dirección de lo Contencioso del Gobierno Vasco que defiende a la Agencia de evaluación en los procesos judiciales iniciados por los solicitantes contra las resoluciones emitidas y la experiencia de procesos similares en otras Comunidades Autónomas.

A partir de todo ello se ha elaborado una propuesta de modificación que trata de evitar la enorme litigiosidad que ha distinguido este proceso, agilizar el procedimiento de evaluación y concesión y conseguir un sistema más estable y homologable con otros sistemas de complementos retributivos adicionales establecidos en la función pública.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, emitido el Informe de Evaluación previa de Impacto en función del género, oídos el Consejo Vasco de Universidades, el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria y oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de marzo de 2011,

DISPONGO:

***Artículo único.***– El Decreto 209/2006, de 17 de octubre, sobre complementos retributivos adicionales del personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, se modifica en los siguientes términos:

***Primero***.– El apartado 3 del artículo 1 queda redactado del siguiente modo:

«3.– La asignación de los complementos exigirá la previa valoración y evaluación positiva de los méritos en que se sustentan Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, conforme al protocolo previsto en el artículo 8.1 del presente Decreto».

***Bigarrena***.– 2. artikuluko 2. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«2.– Dekretu honetan ezarritako gehigarrizko ordainsariak eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Euskal Herriko Unibertsitatearekin lan-, estatutu- edo administrazio-lotura izatea eskabidea egiten den unean, bai eta Unibertsitatean jardunean egotea».

***Hirugarrena***.– 3. artikuluko 1. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuak berariazko zuzkidura bat jasoko du gehigarrizko ordainsari-osagarriak finantzatzeko. Zuzkidura hori osagarrien kostuaren % 85 eta % 90 bitartekoa izango da, alde batera utzita banaka identifika daitezkeen langile-kolektiboei eragiten dieten kontratu-programa espezifikoetan sartutako ordainsariak. Gainerako kostuak Euskal Herriko Unibertsitateak ordainduko ditu».

***Laugarrena***.– 4. artikuluko 2. paragrafoa idazkera hau izango du aurrerantzean:

«2.– Gehigarrizko ordainsari osagarriak indibidualak dira eta banaka emango zaizkie interesdunei, horretarako argitaratuko diren deialdietan eskabidea aurkezten badute. Irakasleek onartu egingo dute irakaskuntzan, ikerketan, kudeaketan eta ezagutza-transferentzian egin duten lana ebaluatua izatea bost urtetik behin, horretarako ezarritako eskabide-eredu baten bidez; ebaluazio horretatik kanpo geratuko da C2 eta B1 tarteetarako 5.5 artikuluan ezarritakoa. Onartutako osagarriak finkatutakotzat joko dira».

***Bosgarrena***.– 4. artikuluaren 3. paragrafoa ezabatu egiten da.

***Seigarrena***.– 5. artikuluak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«5. artikulua.– Osagarrien mailak eta tarteak.

1.– Irakaskuntzan, ikerketan, kudeaketan eta ezagutza-transferentzian aurreko urteetan lortu eta ebaluatutako merezimenduen arabera emango dira gehigarrizko ordainsari osagarriak, betiere gauzatutako jardueren eraginkortasuna eta eragimena egiaztatzen bada. Osagarriok ez dira inoiz emango jarduera batean hainbat denbora emate hutsagatik.

2.– Irakaskuntzako eta ikerketako merezimenduei lotutako gehigarrizko ordainsari-osagarriak irakaskuntzako eta ikerketako jardueren bikaintasuna, kalitatea eta etengabeko hobekuntza piztu eta aitortzeko izango dira, barne hartuta jardueran beste hizkuntza batzuk erabiltzea eta, bereziki, euskara erabiltzea. Hizkuntza-eskakizuna norbere borondatez aldatzea eta eskakizun elebiduneko plaza batera jotzea balioetsi egingo da.

***Segundo***.– El apartado 2 del artículo 2 queda redactado del siguiente modo:

«2.– Para disfrutar de los complementos retributivos previstos en este Decreto será requisito imprescindible mantener vinculación laboral, estatutaria o administrativa con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en el momento de la solicitud y estar en activo en esta Universidad».

***Tercero***.– El apartado 1 del artículo 3 queda redactado del siguiente modo:

«1.– El proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi incluirá una dotación específica destinada a la financiación de los complementos retributivos adicionales equivalente a un porcentaje entre el 85% y el 90% del coste de los mismos, con excepción de aquellas retribuciones que se incluyan en contratos-programa específicos que puedan afectar a determinados colectivos de personal identificables individualmente. La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea cubrirá el resto del coste de los mismos».

***Cuarto***.– El apartado 2 del artículo 4 queda redactado del siguiente modo:

«2.– Los complementos retributivos adicionales son de carácter individual y personal y se concederán a solicitud de la persona interesada dentro de las convocatorias publicadas al efecto. El profesorado podrá someter a evaluación su actividad docente, investigadora y transferencia de conocimiento y de gestión cada cinco años, conforme a instancia normalizada establecida al efecto, salvo en lo dispuesto en el artículo 5.5 para los tramos C2 y B1. Los complementos concedidos se considerarán consolidados».

***Quinto***.– Se suprime el apartado 3 del artículo 4.

***Sexto***.– El artículo 5 queda redactado del siguiente modo:

«Artículo 5.– Niveles y tramos de complementos.

1.– Los complementos retributivos adicionales podrán concederse en función de los méritos docentes, investigadores y de transferencia del conocimiento y de gestión evaluados y contraídos en años anteriores que acrediten la eficacia y eficiencia de las actividades desarrolladas. En ningún caso podrán concederse en virtud del mero transcurso del tiempo en el desarrollo de la actividad.

2.– Los complementos retributivos adicionales ligados a méritos docentes e investigadores estarán dirigidos a estimular y reconocer la excelencia, la calidad y la mejora continua en las actividades docentes e investigadoras, incluyendo el uso de otros idiomas en el desempeño de su labor y, en cualquier caso, el uso del euskera. Se valorará el cambio voluntario de perfil lingüístico a una plaza de perfil bilingüe.

3.– Osagarriak meta daitezkeen hiru mailatan sailkatuko dira, eta tarte progresibo desberdinak izango dituzte. Hiru maila horiek ebaluatzeko (C, B eta A), irakaskuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian lortutako merezimenduak hartuko dira aintzat. B eta A mailetan, kudeaketa-arloko merezimenduak ere aintzat hartuko dira.

4.– Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziari dagokio Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen maila eta tartea finkatzea.

5.– Hauek dira osagarrien hiru mailak:

a) C maila; Euskal Herriko Unibertsitatearekiko dedikazio profesionala saritzea du helburu. Bi tarte izango ditu:

– C1; tarte hau eskuratu ahal izateko, 3 urteko lotura egiaztatu behar da Euskal Herriko Unibertsitatearekin, eta dekretu honetako eranskinean C mailarako jasotako baldintzak bete. Zenbatekoa 1.625 eurokoa izango da urteko.

– C2; tarte hau eskuratu ahal izateko, 7 urteko lotura egiaztatu behar da Euskal Herriko Unibertsitatearekin, eta dekretu honetako eranskinean C mailarako jasotako baldintzak bete. Ez da beharrezkoa bost urte igaro izana aurreko ebaluazioa egin zenetik. Zenbatekoa 2.125 eurokoa izango da urteko.

b) B maila; kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzea du helburu. Hiru tarte izango ditu:

– B1; tarte hau eskuratu ahal izateko, 5 urteko lotura egiaztatu behar da Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Tarte hau lehenengoz eskatzen bada, ez da beharrezkoa izango bost urte igaro izana aurreko ebaluazioa egin zenetik. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da, gutxienez, C1 tartea izatea eta 25 puntu eskuratzea. Zenbatekoa 1.600 eurokoa izango da urteko.

– B2; tarte hau eskuratu ahal izateko, gutxienez 10 urteko antzinatasuna eta doktore titulua izatea egiaztatu beharko dira, bai eta C1 eta C2 tarteak dagoeneko izatea eta, gutxienez, 50 puntu lortzea ere. Zenbatekoa 1.900 eurokoa izango da urteko.

– B3; tarte hau eskuratu ahal izateko, gutxienez 10 urteko antzinatasuna eta doktore izatea egiaztatu beharko dira, bai eta C1 eta C2 tarteak dagoeneko izatea eta, gutxienez, 75 puntu lortzea ere. Zenbatekoa 2.200 eurokoa izango da urteko.

c) A maila; bikaintasuna saritzea du helburu. Maila hau eskuratu ahal izateko, nahitaezkoa da 15

3.– Los complementos estarán clasificados en tres niveles acumulables y diferentes tramos progresivos. En la evaluación de estos tres niveles (C, B y A) se tendrá en cuenta los méritos de docencia, investigación y transferencia del conocimiento. Para los niveles B y A también se tendrán en cuenta los méritos de gestión.

4.– Corresponde a Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco computar el nivel y el tramo en el que se sitúa el personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

5.– Los tres niveles de complementos son:

a) El nivel C, destinado al reconocimiento de la dedicación profesional a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, estará compuesto por dos tramos:

– C1, al que se podrá acceder siempre que se acrediten 3 años de vinculación con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y se cumplan con las condiciones recogidas para el nivel C en el anexo del presente Decreto. Tendrá una cuantía anual de 1.625 euros.

– C2, al que se podrá acceder siempre que se acrediten 7 años de vinculación con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y se cumplan con las condiciones recogidas para el nivel C en el anexo del presente Decreto, sin que sea necesario que hayan transcurrido cinco años desde la evaluación anterior. Tendrá una cuantía anual de 2.125 euros.

b) El nivel B, destinado al reconocimiento de la calidad y la mejora continua, estará compuesto por tres tramos:

– B1, al que se podrá acceder siempre que se acredite una antigüedad mínima de 5 años en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Cuando se solicite este tramo por primera vez no será necesario que hayan transcurrido cinco años desde la evaluación anterior. En todo caso, debe haber obtenido al menos, el tramo C1 y al menos 25 puntos. Tendrá una cuantía anual de 1.600 euros.

– B2, al que se podrá acceder siempre que se acredite una antigüedad mínima de 10 años y la condición de doctor, se tengan los tramos C1 y C2 y se obtengan al menos 50 puntos. Tendrá una cuantía anual de 1.900 euros.

– B3, al que se podrá acceder siempre que se acredite una antigüedad mínima de 10 años y la condición de doctor, se tengan los tramos C1 y C2 y se obtengan al menos 75 puntos. Tendrá una cuantía anual de 2.200 euros.

c) El nivel A, destinado al reconocimiento de la excelencia, y al que se podrá acceder siempre que se

urteko antzinatasuna egiaztatzea eta doktore izatea, bai eta C1 eta C2 tarteak dagoeneko izatea eta, gutxienez, 90 puntu lortzea ere. Maila honek bi tarte izango ditu: A1 eta A2.

– A1; urteko zenbatekoa 2.100 eurokoa izango da.

– A2; urteko zenbatekoa 2.600 eurokoa izango da.

6.– Antzinatasuna kalkulatzeko orduan, C1, C2 eta B1 tarteetan ez beste guztietan, honako hauek hartuko dira kontuan: Euskal Herriko Unibertsitatean, edo beste unibertsitate edo ikerketa-zentroetan, edozein lan-, estatutu- edo administrazio-loturaren bitartez, irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa edo ezagutza-transferentziaren esparruan burututako jarduerak. Antzinatasunaren ondorioetarako, zerbitzu-eginkizunetan, zerbitzu berezietan eta antzeko egoeretan egon ondoren jardunera itzuli direnek halako egoeretan emandako denbora sartu ahal izango dute ebaluazio-eskabideetan edo, nahi izanez gero, sartu gabe utzi.

7.– Mailak eta tarteak ebaluatzeko orduan, irakaskuntzaren, ikerketaren, kudeaketaren eta ezagutza-transferentziaren merezimenduak balioetsiko dira, 5.3 artikuluan ezarritakoaren arabera; edonola ere, aldeko balioespena beharko da, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak zehazten duen eran».

***Zazpigarrena***.– 6. artikuluak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«6. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

1.– Gehigarrizko ordainsari-osagarriak eskuratzeko merezimenduen ebaluazioa egiteko, Jaurlaritzak eta unibertsitate-arloko eskumenak dituen sailak unibertsitate politikarako ezarritako helburuak modu indibidualean bete diren aztertuko da.

2.– Horretarako, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak ebaluazio-parametroak ezarriko ditu aurreko artikuluan aipatutako tarte bakoitzarentzat, betiere, dekretu honetako eranskinean norbanakoentzat jasotako irizpide objektibo orokorren arabera. Parametro horiek argiak eta zehatzak izan behar dira, eta eskatzaileek autoebaluazioa egiteko modukoak.

3.– Eranskin horretako irizpideak berrikusi eta dekretu bitartez aldatu ahal izango dira, unibertsitate-arloko eskumenak dituen sailaren proposamenez, hain zuzen ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren antolamenduari eta erronka berriei egokitu daitezen».

***Zortzigarrena***.– 7. artikuluak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«7. artikulua.– Deialdiak.

acredite una antigüedad mínima de 15 años y la condición de doctor, se tengan los tramos C1 y C2, y se obtengan al menos 90 puntos, estará compuesto por dos tramos: A1 y A2.

– A1, que tendrá una cuantía anual de 2.100 euros.

– A2, que tendrá una cuantía anual de 2.600 euros.

6.– A los efectos del cómputo de la antigüedad, salvo para los tramos C1, C2 y B1, se tendrán en cuenta todas las actividades docentes, investigadoras y de transferencia de conocimiento o de gestión realizadas bajo cualquier vinculación laboral, estatutaria o administrativa con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, otras universidades o centros de investigación. A estos efectos, las personas que estén en comisiones de servicios, servicios especiales y situaciones análogas podrán optar entre incluir en su solicitud de evaluación estos periodos o no, tras su reincorporación a la situación de actividad.

7.– En la evaluación de los diferentes niveles y tramos se incluirán los méritos docentes, investigadores y de transferencia de conocimiento y de gestión, según lo establecido en el artículo 5.3, siendo necesaria, en cualquier caso, una evaluación positiva en los términos que determine Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco».

***Séptimo***.– El artículo 6 queda redactado del siguiente modo:

«Artículo 6.– Criterios de evaluación.

1.– La evaluación de los méritos ligados a los complementos retributivos adicionales estará vinculada al logro individual de los objetivos de política universitaria que sean establecidos por el Gobierno y el departamento competente en materia de universidades.

2.– A tales efectos, Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco fijará los parámetros de evaluación de cada uno de los diferentes tramos señalados en el artículo anterior desarrollando los criterios objetivos generales, de carácter individual, recogidos en el anexo al presente Decreto. Dichos parámetros deberán ser claros, detallados y permitir la autoevaluación de las personas solicitantes.

3.– Los criterios recogidos en el citado anexo podrán ser revisados y modificados, mediante Decreto, a propuesta del Departamento competente en materia de universidades para su adecuación a la ordenación y a los nuevos retos del Sistema Universitario Vasco».

***Octavo***.– El artículo 7 queda redactado del siguiente modo:

«Artículo 7.– Convocatorias.

1.– Euskal Herriko Unibertsitateari dagokio gehigarrizko ordainsari osagarriak emateko prozedura sustatu eta horiek esleitzea. Hori dela-eta, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren proposamenez, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak deialdia onartu eta argitaratuko du urtero. Bertan, gehigarrizko ordainsari-osagarriak esleitzeko oinarri diren merezimenduak ebaluatzeko epeak, era eta betekizun orokorrak finkatuko dira.

2.– Irakasle eta ikertzaileek Unibertsitateko Kontseiluan aurkeztuko dituzte eskabideak, banaka eta bide telematikoz, betiere Herritarrek zerbitzu publikoak eskuratzeko sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikuluarekin bat.

3.– Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak eskabideak jaso ondoren, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziari helaraziko dizkio; entitate publiko honek, dokumentazioa aztertu ondoren, eskabideak zuzendu eta hobetzeko eskatu ahal izango die eskatzaileei, hala behar izanez gero, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritako eran, eta Unibasq Agentziak argitaratutako ebaluazio-protokoloan ezarritakoarekin bat, hala ezartzen baita dekretu honen 8. artikuluan.

4.– Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak sei hilabeteko epea izango du gehigarrizko ordainsari osagarriak esleitzeko erabakiak hartu eta jakinarazteko, deialdia argitaratzen den egunetik aurrera. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoa beteko da; artikulu horren bidez, ofizioz hasitako prozeduretan berariazko ebazpenik eza arautzen da (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

***Bederatzigarrena***.– 8. artikuluko 1. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«1.– Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak ebaluatuko ditu merezimenduak, Agentziak berak berariaz onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebaluazio-protokoloari jarraituz».

***Hamargarrena***.– 8. artikuluko 3. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«3.– Seigarren artikuluan adierazitako irizpideei jarraituz, ebaluazio-protokoloak honako hauek zehaztu

1.– La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea es la Administración Pública impulsora del procedimiento y competente en la asignación de complementos retributivos adicionales. Por ello, a propuesta del Consejo de Gobierno de la universidad, el Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, con carácter anual, aprobará y publicará la convocatoria en la que se fijen los plazos, forma y requisitos generales para someter a evaluación los méritos en que se fundamenta la asignación de complementos retributivos adicionales.

2.– Las solicitudes serán presentadas, a título individual, ante el Consejo de Gobierno de la universidad por el personal docente e investigador por vía telemática, de acuerdo con el artículo 27.6 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos.

3.– El Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea remitirá las solicitudes a Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, ente público que realizará el análisis de la documentación presentada, pudiendo requerir a los solicitantes, en su caso, la subsanación y mejora de la solicitud en los términos recogidos en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y de conformidad con lo dispuesto en el protocolo de evaluación que la Agencia haga público, según se dispone el artículo 8 del presente Decreto.

4.– El Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea dispondrá de un plazo máximo para dictar y notificar los acuerdos sobre asignación de complementos retributivos adicionales que será de seis meses a contar desde la fecha de publicación de la convocatoria. La falta de resolución expresa en plazo se rige por lo previsto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que regula la falta de resolución expresa en los procedimientos iniciados de oficio».

***Noveno***.– El apartado 1 del artículo 8 queda redactado del siguiente modo:

«1.– La evaluación de los méritos será realizada por Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco de acuerdo con el protocolo de evaluación aprobado al efecto por la propia Agencia y publicado en el Boletín Oficial del País Vasco».

***Décimo***.– El apartado 3 del artículo 8 queda redactado del siguiente modo:

«3.– El protocolo de evaluación deberá señalar, atendiendo a los criterios señalados en el artículo 6,

behar ditu: osagarri-mota bakoitza ebaluatzeko eskatzen diren merezimenduak; dekretu honetan jasotako tarte bakoitza eskuratu ahal izateko bete behar diren eskakizunak, behar den gutxienekoa adierazita; eta horiek guztiak zenbatzeko eta balioesteko parametro objektiboak».

***Hamaikagarrena***.– 8. artikuluko 4. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«4.– Eskatzaileek agiri-bidez egiaztatu beharko dituzte, ebaluazio-protokoloan zehaztutako eran, ordainsari osagarriak eskuratzeko alegatutako merezimenduak. Gainera, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Unibasq Agentziak egoki iritzitako argibideak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, alegatutako merezimenduen inguruan».

***Hamabigarrena***.– 8. artikuluko 6. paragrafoak idazkera hau izango du aurrerantzean:

